

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALA

Banaketa

Gure arropa alokatu nahi dabenen eskuetan jartzeko:

- **Modu fisikoa:** Bezeroek lokalera joko dabe arropa ikusteko, bertan erropa hori jantzita zelan geratzen dan ikusteko eta bertan alokatzeko. Erropa bueltatzeko be lokalera jo leikie edo Correos bidez bidali ahal dabe.

Komunikazioa

Lehen aitatu dogun lez, bezeroek gure barri izango leukie sare sozialen bidez batez be:

- **Instagram:** Instagram kontuan jarraitzaileak irabazteko eta ahalik eta jente gehien gure profila bisitatzeko, gure asmoa lur planetaren aldeko ekintzak burutzen dabezan beste enpresa lokalekaz harremanetan jartzea da. Horrela, alkarri lagundu ahalko geunskio bata bestearen proiektua bultzatzen eta jenteak erropa guri saltzera edo guri alokatzera animatuko litzateke.
- **Tik Tok:** Tik tok-en ezagutzera emoteko, modan dagozan *hashtag*-ak erabiliko geunkez ahalik eta jente gehienaren "para ti" planoan agertzeko.
- **Irratiko iragarkiak:** Irratia jente nagusia gure proiektuaren barri izateko aukera bikaina da. Tokiko irratian iragarki bat grabatuz, sare sozialak erabilten ez dauzan jenteak gure negozioa ezagutu ahalko dau.
- **Lokalaren ikusgarritasuna:** Aipatzekoa be bada lokalaren ikusgarritasuna. Izan be, gure lokala jende asko igarotzen dan eremuan kokatuta dagoanez, Deusto inguruan, Castañosen, sinergia efektua lortuko geunke eta jente askok ikusiko leuke gure lokala kaleetatik ibiltzean zehar. Gainera, dendaren erakusleihoa manikiak eta apaingarri modernoak eta xarmagarriak erabilia bezeroak erakarriko geunkez.
- **Tratu pertsonala:** Bukatzeko, tratua fisikoa eta oso pertsonala izanda, gure bezeroek ahoz-aho bidezko publizidadea egingo deuskuela pentsatzen dogu.